

Espezie exotikoen sartzapena: bertako faunarentzako arriskua

Gaztelugatxeko sugandilen adibidea, kanpoko espezieen sartzapenak ekosisteman eta biodibertsitatean eduki dezakeen eraginaren adibide bat besterik ez da. Bertakoa ez den faunaren sartzapenak, beste hainbat espezie autoktonoren desagertzea eragin dezake eta era berean, ekosistemaren desoreka sor dezake. Zoritxarrez, sartzapenen emaitzak sarritan denbora askoren ostean baizik ez dira ulergarriak, dagoeneko, bere ondorioek atzera bueltarik ez dutenean. Aipaturiko mehatxuak direla eta, ingurune naturalean espezie exotikoen sartzapena ekiditea ezinbestekoa da.



© Iñaki Sarz-Azkué

 **ARANZADI** zientzi elkartera . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

HERPETOLOGIA behatokia
observatorio . observatory . observatoire



**BERMEOKO
UDALA**



**ELKARLAN BILKESKUN
MUTUAGARRIAK DIRA**
DEPARTAMENTO DE LINGÜA
AJARRAKETA Y GELAKARRIAK
DEPARTAMENTO

INFORMAZIO GEHIAGO: www.aranzadi-herpetologia.org

 galduta

Gaztelugatxeko Sugandilak



ARANZADI zientzi elkartera . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



Podarcis pityusensis

Gaztelugatxeko jatorrizko sugandila

Sugandilak ahalmen kolonizatzaile handiko narrastlak dira. Milaka urteetan zehar animalia hauek kantaurialdeko gunerik eguzkitsuenetan, kostan barne, bizi izan dira. Horma-sugandila (*Podarcis muralis*) Euskal Autonomia Erkidegoko zati handi batean aurki daiteke eta Bizkaiko kostan eta irletan arrunta da.



Gaztelugatxe



Horma-sugandila (*Podarcis muralis*)

Gaztelugatxe (Biotopo Babestu moduan izendaturikoa), Aketze Irla eta Inguruko kostako horma-sugandilaren bizileku izan dira urteetan zehar. Duela gutxi arte, Gaztelugatxeko gunerik eguzkitsuenetan, hegoaldeko magalean eta gainaldean oso arrunta zen eta kostako habitata osatzen duten harkaitzen zuloetan, zuhaitzetan eta ermitara doan bidetako hormako harri arteko ezkutalekuetan ikus zitezkeen.

Gaztelugatxeko sugandilak lebiakide berri bat du



Pitiusetako sugandila (*Podarcis pityusensis*) bizilekua

90. hamarkadan, aldiz, jatorri ibizarra duen eta gizakiak sartua den sugandila baten presentzia atzeman zen Gaztelugatxen. Pitiusetako sugandila (*Podarcis pityusensis*) du izena, Mediterraneoko kostako giroari oso ondo moldaturik dago eta ahalmen inbaditzaile handiko animalia da. Bere



Sugandilaren habitata Gaztelugatxen

jatorrizko irla eta irlatxoetan (Pitiusetako artxipelagoan), areatza eta zuhaitzek osaturiko lur harritsueta bizi da, Gaztelugatxen aurkitu duen habitataren oso antzeko lekuetan, hemengotik landarediaren osaketarengatik soilik berelzten diren. Litekeena da Euskal Herriko kostako klima epela, temperatura aldaketa handirik gabekoa, lagungarri izana azken hamarkadan Gaztelugatxe kolonizatzeke. Datozen urteetarako klima aldaketa dela eta iragarrita dauden temperatura igoerak lagungarri izan daitezke bere sartzapena aurrera ateratzeko.

Ekosistemarentzako mehatxua?



Gaztelugatxe ingurua

Pitiusetako sugandila horren ondo moldatu da Gaztelugatxeko ingurura, bertako sugandila, autoktonoa, erabat bota duela lekutik. Egun, bertan dagoen espezie ugariena da. Horma-sugandilarekin izan duen lehian, Pitiusetako sugandilak duen tamaina handia eta izaera erasokorra lagungarri izan ditu, baita klimatologiaren

arabera aktibitate orduak aldatzeko duen ahalmenak eta duen dieta anitzak ere (animalia ezberdinez, hostoez, loreez, haziez, fruituez eta polenez osatuak). Hau dela eta, Gaztelugatxeko gunerik eguzkitsuenak hartu ditu, garai batean horma-sugandilarenak ziren gunek. Honela, egun Pitiusetako sugandila bertan ugaltzen da eta erraza da espezie honetako animalia gazteak ikustea.

Itxuraz, Pitiusetako sugandilari bai geratu zaiola bada Gaztelugatxe eta dagoeneko lurmuturra kostarekin elkartzen den gunetik oso gertu ikusi da. Denbora gutxian kostako gertuko gunetara zabal daiteke, eta etorkizunean kostatik, Bizkaiko herpetofaunako espezie berri bat bihurtuz. Bestalde, ezin da jakin guzti honek Bizkaiko kostako ekosistemarentzat ekar dezakeen ondorioa. Jakina da, gertatuko litzatekeen lehendabiziko gauza horma-sugandila lekutik botako lukeela dela, baina gainontzeko musker, ornogabe eta landareekiko izango lukeen eragina ezin da oraindik ere aurreikusi. Esaterako, bere jatorrizko lekuan Pitiusetako sugandilak hazi-banatzaileria lana egiten du.